

Prentsa oharra

Nota de prensa



IRUN PLAZAREN IRUDIA ALDATUKO DA, BERTAN HIRI BASOTXO BAT JARRITA

Datozen egunotan, paisaje-eskuhartze bat egingo da Irun plazako biribilgunean, Amara auzoan.

Hiri-zuhaizti txiki bat jarriko da, eta, zuhaitzez gain, landare bizkorak eta zuhaixkak izango ditu. Hala, biribilguneak irudi berri bat, begetalagoa, izango du. Orain, denboraldiko loreak daude, eta heskai txikiak, belarrear lineak irregularrak marrazten dituztenak.

Ekologiako zinegotzi Marisol Garmendiak nabarmendu duenez, "plazak hiri-zuhaizti baten irudia izango du, eta landaketen arabera bereizitako eremuak izango ditu, multzoa nabarmentzeko. Gainera, biribilgunearen buru den eskultura-multzoari balioa eman nahi zaio. Multzo horrek 1813ko abuztuaren 31ko gertakari tragikoak gogorarazten ditu, eta Aitor Mendizabalen lana da."

Egingo diren landaketak hiru taldetan banatuko dira. Alde batetik, punta gorriko gramineoak landatuko dira (*imperata cylindrica*), ikatzezko lur-estalki baten gainean, Donostiak suntsitu zuen suari erreferentzia eginez. Neguan kolore horiz loratzen diren zuhaixka erorkorrak ere landatuko dira, baita enbor gorriak ere (*cornus alba*), garai hartako sua gogora ekarri.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udaberriko loraldiek gogora ekarriko dute bizirik atera zirenek hiria ia hutsetik berreraikitzeke hartu zuten erabakia.

"Gainera, setioaren biktimen oroimenez, 16 altzifre landatuko dira", adierazi du Garmendiak. Konfigurazio berriak, goitik ikusita, gurutze forma izango du, eskultura erdian duela, eta koloreak aldatuz joango dira landatuko diren landareen eta loreen loratze-estazioen arabera.

Eskuhartzeak 47.000 euroko kostua du. Diru horretan sartzen da, baita ere, biribilgunea automatikoki ureztatzeko sistema berritzea. Proiektua K1 Ekopaisaia enpresak diseinatu du, eta lanak hilabete eta erdian egingo dira, ondo bidez eta eguraldiak horretarako aukera ematen badu.